

ETNOLOGIA ETA DIALEKTOLOGIA

1) Nola deitzen zara?

-Katalina.

2) Zenbat urte dituzu?

-(....., cuanto he dicho) irutnogeitamaika, irutnogeitamabost.

3) Non bizi zara?

- Arraitzen.

4) Non jaioa zara?

- Berueten.

5) Zenbat zineten zure familian?

- Bederatzi aizpe ta anaie bat.

6) Txikitatik lana egiten zenuen?

- Bai, amaike urtetatik asita.

7) Etxean laguntzen zenuen?

- Bai, bai, aunditz.

8) Lana, lana, zaila zen landareak, animaliak.... etab. zaintzen?

- Lana, lana. Fuertia, ardiek eta beiak, aiek esnia kendu, ta gazta egin,ta denak egin bear giñuzen.

9) Zenbat urtekin hasi zinen lanean etxetik kanpo?

- Etxetik kanpo yoan nintzen amika urte ta erdiekin, gazteikan yoan nintzen.

10) Nora?

- Larunbera, herri betera, Irurtzendik beittigo dago.

11) Egiten zenuen lana, ongi ordaintzen zen?

- Bai, bai, ongi, ongi.

12) Urtaroak, nolakoak ziren lanbideetarako?

- (....., no se ahora ja,ja,ja.....)

(Pues, udaberria ta...)

- A! nolakoak ziren?

(Bai.)

- Txarrak, eitten zuen elurre aundiz.

13) Eskolara joaten zinen?

- Bai, yoaten giñen bai, ta bizi giñen baserrien gaiñera.

14) Hala bada, klaseak galtzen zenituen familiakoei etxean laguntzeko?

- Ez, ez, eskolara yoaten giñen betti.

15) Txikitatik ikasi zenuen Euskara hizkuntza?

- Txiki,txikitatik asita bai, etzen besterik solasten nire herrien.

16) Norekin?

- Pues eskolan ere dena euskaraz egitten giñuen.

17) Lehen Euskaldunak zinetenak, euskaraz hitzegiten zenuten?

- Dena, dena.

18) Maixuak nolakoak ziren tratuan?

- Bai, franko gaiztoak ziren, yotzen ziuten ta patzen eskuek gora- gora ta liburuek patu, (ja,ja,ja) eskuetan.(ja,ja,ja).

19) Bizitzan zehar, nolako bizimodua izan duzu?

- Bizimodue, itxean ona, aitte ta ama onak giñuzen ta ongi.

20) Lanbide asko izan dituzu?

- Laneak, lanbideak bai, izaten giñuzen.

21) Arropak, non garbitzen zenituzten?

- Pues, ez giñuen argi elektrizidadea, ez giñuen ertxean, ta ure ere ez, ta yoaten giñen, ordu bet pasten giñuen bidcan, ekartzeko ure ta arropa garbitzeko ta.

22) Gaixorik jartzean zein botikak hartzen zenituzten?

- Ba, ez giñen gaixorik yartzen, beti fuertiak izandu giñen.(ja,ja,ja).

23) Oso errax hiltzen zen jendea berogailurik ez zegoelako edota gripea hartuta?

- Ez, izaten tzen beti medikue izaten tzen ta, ematen tzituen medezinak eta.

24) Kondairak edo istorioak dakizkizu hemen kontatzeko?

- Bat edo berztze, gutxi, aztu zazkie orai.(ja,ja,ja).

25) Zure gurasoekin hitzegiten zenuen kondairei buruz?

- Bai, bai gurasoak onak giñuzen, oso onak.

26) Ta badakizu kondaira bat, hemen kontatzeko orain?

-Orain kontatzeko, zerbait ere?

(Txiste edo...)

- Txistea,pues e ,orai emen Arraitzen bizi giñenin, iguitten giñuen etxian gizon bat, franko akiñekoa, etzuen lanik eitten ta, nere semeak eta ttikiek ta aici txisteak kontatzen aitzen zen.

27) Nola definituko zenuke lehen eta oraingo aldaketa?

- Oraingoa, orain ohea aunditzeki.

28) Gurasoen tratua nolakoa zen?

- Ona, gurekin ona, gu ere portatzen giñen ongi, ta gurasoak gurekin ere bai.

(Beno ia bukatu da (beno) agur eskerrik asko,(agur, ez ta zu ere.)